

Aldaketa klimatikoari buruzko gure ikasleen hitzaldia

Basarte eskualdean, EA21 proiektuaren barruan, "Aldaketa klimatikoa" gaia lantzen ari gara aurten. Altxabarren, Mendipe ikastolan, gaiari heldu, eta astebetetz hitzaldiak eta bestelako jarduerak antolatu dituzte. DBH3 eta DBH4ko ikasleei aldaketa klimatikoari buruzko formazio saio bat emateko, Toribio Etxebarria LHIIko Instalazio Termikoak eta Fluidodunen Mantentzea goi mailako zikloko ikasleek hartu dute ardura.

Saxoa, bideoak, bertsoak, proiektzioak, jokoak, sariak eta bestelako baliabideak erabili zituzten ikasleek gazteengan jakin-mina pizteko. Eta lortu zutelako sententzia ere badute. **Koldo Berastegik** ireki zuen saioa, saxoa hartuta. Harridura aurpegiarekin begiratzen zioten elkarri Ibarako Kultura Etxera bertaratu ziren hirurogeitaka ikasleek. Ondoren, **Jon Garaizarrek** bertsotan azaldu zien zer ikasi behar genuen egun hartan.

Iñaki Uranga obabarrak irakatsi zigun aldaketa klimatikoa zer den, eta oinarrizko parametro batzuk zertan diren aditzera eman. Testuinguruan kokatu gintuen **Abel Telleriak**, hiru gako hauek azalduta: munduko biztanleria, nola tratatzen den ura munduan, eta Ama Lurrak ematen dizkigun bestelako baliabideak.

Beñat Irazuri egokitu zitzaion aldaketa klimatikoari buruzko jarrerak kontrajartzea: eszeptikoen eta ofizialisten ikuspuntuak erakutsi zizkigun. **Dani Etxeberriak** azaldu zigun zein gasek eragiten duten negutegi efektua: ur lurrina (H_2O), karbono dioxidoa (CO_2), metanoa (CH_4), nitrogeno oxidoak (NO_x), ozonoa (O_3) eta [klorofluorokarbonoak](#) (CFC). Tenperaturaren eta karbono dioxido kontzentrazioaren bilakaeraren berri ere eman zigun.

Aurkezpenaren azken hausnarketa **Niko Ayestak** egin zuen: besteak beste, biodibertsitatean izango diren ondorioak, ozeanoen azidifikazioa, biztanleen migrazioa eta uraren kutsadura aztertu zituen.

Bukatzeke, Kahoo joko interaktiboan parte hartu zuten ikasleek. Oso ondo pasa genuen ikasleok zein irakasleok, eta bide batez ikasi eta kontzientzia hartu ere egin genuen denok.

Agerian geratu zen oso interesgarriak eta aberatsak direla irakaskuntza ziklo ezberdinak uztartzen dituzten jarduerak. Gainera, Lanbide Heziketako ikasleek, irakasleena eginda, aldatu egin zuten eguneroko rola; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak, berriz, ikasgelaz besteko inguru batean aritu ziren, han ere gaitasunak lortzen.

Txalo zaparrada ugariak izan ziren emanaldietan zehar. Bejondeizuela parte hartzaile guztioi!